

TRATU TXAR FISIKOEN ETA EKONOMIKOEN ADIERAZLEAK DETEKTATZEKO GALDE-SORTA ETA LARRITASUNAREN BALORAZIOA



Jarraibideak

Galde-sorta honen helburua da adinekoen aurkako tratu txarren adierazleen behaketa sistematizatua egitea eta behar bada pertsona horiek jasaten duten kalte fisiko edo ekonomikoaren arriskua baloratzea. Galde-sorta betetzen da, kasu hauetakoren bat gertatzen denean:

- Prebentzioari buruzko galde-sortan bi arrisku faktore edo gehiago detektatu dira.
- Adinekoak esan du tratu txarren biktima dela.
- Adinekoari eragindako egoera kaltegarri bat identifikatu da, adinekoak berak kontatua edo hirugarrenek behatua, eta egoera hori ez da oinarritzen haren egoera pertsonalean edo jarduketa planean.

Galde-sorta erreferentziatzko profesional batek edo gizarte edo osasun larrialdietako profesional batek kudeatuko du beti (gizarte zerbitzuetan, oinarritzko gizarte langileak edo gizarte larrialdietako zerbitzuetako langileek; osasun arloan, berriz, larrialdi zerbitzuetako edo oinarritzko osasun laguntzako profesionalak).

Eskatu nahi dizugu, ahal den neurrian, adinekoaren errealitatea aztertzen edo ikertzen saiatzeko, haren egoerari eta inguruneari buruzko ahalik eta informazio gehiena lortu ahal izateko.

Koloreen kode bat erabili da, adinekoak pairatzen duen kalte arriskua sailkatzeko eta maila bakoitzerako esku-hartze egokia formulatu ahal izateko:

- **LARRIA:** adierazle urdinak dira, eta iradokitzen dute egoera larria dagoela, ez direlako zaintzen adinekoen premia batzuk. **Puntu 1** ematen zaie.
- **OSO LARRIA:** laranja dira. kalte fisiko eta/edo ekonomikoak izateko arrisku handiagoa iradokitzen dute, eta, ondorioz, esku-hartze handiagoa beharko da, arrisku hori saihesteko. **1,5 puntu** ematen zaizkie.
- **PREMAZKO ESKU-HARTZEA:** gorriak dira, eta adinekoarentzat oso kalte handia iradokitzen duten adierazletzat hartzen dira. Berehalako edo ia berehalako esku-hartzea beharko dute. Esan bezala, gorriak dira, eta **2,25 puntu** ematen zaizkie.

Galde-sortaren amaieran adierazten da nola egin arriskuaren balorazio osoa eta nola zehaztu egin beharreko esku-hartzea.

Behaketa egin duen profesionala	
Behaketa egin den eguna	
Behaketa egin den tokia	
Adinekoaren identifikazioa: sexua/jaioteguna/abizenen lehen bi letrak	Adibidez: María Santander García, jaioteguna: 1940/06/12; hauxe izanen litzateke identifikazio gakoa: emakumea/400612/saga)

Jarraian, adierazleen zenbait taula agertzen dira. Mesedez, adierazi **BAI**, baldin badakizu adinekoak adierazle hori duela. Adierazi **EZ**, baldin badakizu ez duela adierazle hori. Adierazi **Ez dakit**, ez baduzu ezagutzen adinekoaren alderdi hori eta horri buruzko informazioa lortzen ahal baduzu. Mila esker.

ADIERAZLE OROKORRAK	BAI	EZ	Ez dakit
Osasunaren narriadura progresiboa, ageriko arrazoirik gabe.	1		
Etxebizitzan bizigarritasun baldintza nahikorik ez egotea (segurtasun falta, zikinkeria, oztopoak...) edo beste baldintza edo laguntza nahikorik ez egotea, adinekoaren beharrak asetzeko.	1		
Adinekoaren beldurra, kexak edo adierazpenak, gaizki tratatzen dutela esanez; adinekoaren jarrera eta/edo adierazteko modua aldatzea, pertsona jakin batzuen edo zaintzailearen aurrean.	1,5		
Setatze terapeutikoa eta tratamenduen eta zainketen neurritz kanpoko erabilera (kontsultak larrialdietan, psikofarmakoen abusua eta abar).	1,5		
Adinekoaren oinarrizko premiak ez zaintzea.	2,25		
Adinekoa zerbitzu soziosanitario batean uztea: ospitalean, oinarrizko gizarte zerbitzuan, osasun etxean...	2,25		
Adierazle orokorren puntuak			

ADIERAZLE FISIKOAK	BAI	EZ	Ez dakit
Euste fisikoko markak, minari lotutakoak.	1		
Zatikako alopezia (soilguneak dituen buru azala).	1		
Tratamendu egokiari ez erantzutea (lesioen bilakaera txarra, neurri egokiak aplikatu ondoren).	1		
Osasun jarraibideak behar bezala ez betetzea (medikazio gutxiago ematea edo gehiegi ematea, laguntza berandu eskatzea, dietak eta zainketak gaizki egitea eta abar).	1,5		
Finkagailu eta murrizketa fisikoak, murrizketarik eta ikuskapenik gabeak.	2,25		
Hematoma batzuk izatea bilakaera fase desberdinetan, arrazoi justifikaturik gabe, euskarririk gabeko eremuetan.	2,25		
Lesioak, adinekoak edo zaintzaileak justifikatu ezin dituztenak, edo behar bezala tratatu ez direnak (behin eta berriz gertatu arren, zaindu ez diren eta justifikatu ezin diren erorikoak).	2,25		
Erredurak, justifikaziorik gabeak (zigarroak, kaustikoak, objektuen marruskadura...).	2,25		
Lokarrien markak (ez lokailuak).	2,25		
Elikadura eta hidratazio eskasa, justifikaziorik gabeak.	2,25		
Indarrez eta indarkeriaz elikatzea.	2,25		
Adierazle fisikoen puntuak			

ADIERAZLE EKONOMIKOAK	BAI	EZ	Ez dakit
Narriadura kognitiborik ez badago, adinekoaren kexa, bere objektu pertsonalak baimenik gabe ukitzen dizkiotelako: bitxiak desagertzea, etab.	1		
Adinekoa legez ezgaitzeko eskaera, hori justifikatzen duen txosten mediko edo psikologikorik gabe.	1,5		
Adinekoa jakinaren gainean egon gabe ordaindu ez diren fakturak, nahiz eta adinekoak horretarako borondatea eta gaitasun ekonomikoa izan.	1,5		
Oinarrizko produkturik ez izatea, gaitasun ekonomikoa izan arren.	1,5		
Baimenik gabe eskuratzea adinekoaren ondasunak, baimen akastunaren bidez.	2,25		
Diru-galera ulertezina, txekeak, besteri bat-bateko transferentziak egitea, etab.	2,25		
Aldaketak lege eta/edo finantza dokumentuetan: sinadura susmagarriak, testamentuen aldaketak edo berriki egindakoak, ahalordeen transmisioa, dohaintzak eta abar, adinekoa erabakiak hartzeko gai ez denean.	2,25		
Banku abalak ematea bere jabetzen eta ondasunen aurka, baldintzak eta arriskuak ezagutu gabe.	2,25		
Adierazle ekonomikoen puntuak			

ADIERAZLE SOZIALAK	BAI	EZ	Ez dakit
Zerbitzu batean (zahar etxea, eguneko zentroa...) alta emateko eskatzea adinekoaren borondatearen aurka, edo mesfidati agertzea jarduketa profesionalaren aurrean, kalte larriko edo kalte arrisku larriko egoeretan, osasun edo gizarte preskripzioaren aurka.	1,5		
Etxebizitzaren espazioa erabiltzeko mugak, eta harekin bizi direnekiko edo beste pertsona batzuekiko harremanak mugatzea.	1,5		
Gizarte harremanak nahita kentzea eta justifikaziorik gabeko konfinamendua.	2,25		
Adierazle sozialen puntuak			

Beste adierazle edo iruzkin batzuk

Oso garrantzitsua da ebaluatu duzun adinekoaren kasuan interesgarritzat jotzen duzun beste edozein ohar adieraztea: beste adierazle batzuk, horietako baten azalpena, adinekoaren berezko ezaugarriak eta abar.

Balorazio orokorra

Galde-sorta bete ondoren, batu puntuazio partzialak (adierazle orokorren puntuak + adierazle fisikoen puntuak + adierazle ekonomikoen puntuak + adierazle sozialen puntuak), eta alderatu emaitza hurrengo taularekin, jakiteko zein den adinekoarenganako tratu txarren arrisku egoera.

EGOERA	PUNTUAZIOA	
Ez da baieztatu tratu txarren susmoa	2 baino gutxiago	▶
Arrisku larriagatiko alerta	2 edo gehiago eta 3 baino gutxiago	▶
Arrisku oso larriagatiko alerta	3 edo gehiago eta 4,5 baino gutxiago	▶
Berehala esku hartzeko egoera	4,5 edo gehiago	▶